

TOKIKOM

2020ko iraila | 206. zenbakia

ai!r!

txorierriko aldizkaria

Ziurgabetasuna ikasgeletan



BERTAKO PRODUKTUEN MERKATUA

03.10.2020

NEKA ZAMUDIO

KULTUR ETXEKO PATIOAN



PIPER EGUNA

BERTON EROSI ETA BERTO ERRE

Antolatzailea / Organiza




Laguntzailea / Colaborador

ZAMUDIOKO
LUR LANGILEEN
ETXEA

Laguntzailea / Colaborador



-  **4 Eretxiak**
-  **5 Laburrak eta albisteak**
-  **11 Itxialdia**
-  **12 Gorka Aguinagalde, aktorea**
-  **14 Gaztea eta... Andoni Fernandez, futbolaria**
-  **16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
-  **18 Zin Bidea**
-  **20 Ikastetxera itzultzea COVID-19aren garaian**
-  **26 Berbalagun egitasmoa**
-  **28 Lan gatazka, ITP enpresan**
-  **30 Udako argazki-lehiaketa, Altzoraren eskutik**
-  **32 Gure musika... J Martina taldea**
-  **34 Ispiluan... Ez da inteligentzia kontua**
-  **35 Aikorrizketa... Berba hutsek bete dute pandemia**
-  **36 Sukaldaritza**
-  **37 Denborapasa**
-  **38 Agenda**



12 Gorka Aginagalde



18 Zin Bidea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Miren Basaras, Ana Mezo, Iñaki Garcia Uribe eta Ana Galar

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Azaleko argazkia: Josu Uribe

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Pentsionistak aurrera

U rte bi eta bederatzi hilabete joan dira pentsiodunok astelehenero plazetan kontzentratzen hasi ginenetik, Bilbon, Gasteizen, Donostian, Iruñean eta beste hainbat (100 aldera) herriak plazetan.

COVID19-aren ondorioz konfinamendua izan dugun bitartean, ezin izan gara plazetan egon, baina pentsiodunen mugimendua lanean ibili da, bilerak egiten jarraitu dugu eta hainbat eragilerekin mantendu dira kontaktuak, aurrerantzean egin beharrekoa zehazten joateko, pentsionisten eskakizunek indar handiagoa hartu dutelako izurritearen ondorioz sortu den egoera ekonomiko-sozial kritiko honetan.

Oraingoan ezin dugu onartu aurreko krisialdian gertatu zena: aberatsak gehiago aberastea, pobreak eta prekaritateak gora egitea, lan-baldintzak okertzea, ekosistemak hondatzea, kultura eta elikadura osasuntsua ez bermatzea eta, baliabideen faltagatik, zainketa behar duten pertsona askori egoera kaxkarrean biziaraztea.

Guk argi dugu egoera hau kudeatzea zaila dela, baina pandemiak hutsune asko

utzi ditu agerian aurretik hartu izan diren erabakien ondorioz, eta nabarmenenak sistema sozio-sanitarioaren baliabide material eta giza baliabideen eskasian ikusi dira. Gogoan dauzkagu, esaterako, aurretik egin izan ziren adinekoen egoitzetako langileen protesta-grebak.

Horren guztiaren inguruan, herritar talde batek ahal izan duen guztia eman du, baina beste batzuei asko sufritzea tokatu zaie. Ezin da berriro gertatu etxekoren bat galtzea eta familiak aukerarik ez izatea azken agurra egiteko, ezta kanposantura laguntzeko ere.

Bestalde, egoera kritiko honek aurrera ere ematen du pertsonak erdigunean jartzeko eta herritarren beharrezko erantzun egokiak emateko: kalitateko osasun-sistema publikoa, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eta 1.200 euroko gutxieneko soldata bermatuz, genero-arrakala desagerraraziz, murrizketak ekarri dituzten lege-erreformak indargabetuz eta abar. Jadanik ezaguna den Toledoko Ituneko partaideak hasita daude bilerak egiten eta orain arteko informazioaren arabere-



ANA MEZO
Irakasle erretiratua

ra esan daiteke gauza onik ez dela handik etorriko; beraz, adi egotea tokatzen zaigu. Edozelan ere, agintariak pertsonak erdigunean ipintzera begira jarri beharko lirateke bai EAEn, bai Nafarroan zein Madrilan.

Argi dagoena da erronka handiak ditugula, eta pentsionisten mugimenduak jarraituko du lanean eta astelehenero plazetan kontzentrazioak egiten. Bide batez, animatu gura zaituztet Txorierrikook, Bilboko udaletxe aurrean, 12.00etako kontzentrazioetan parte hartzera joan gaitezen, eta hilaren lehen astelehenean Bilbora ez bada, eguerdiko 12:00etan Larraitzeko plazan egiten den kontzentrazioa.



MIREN BASARAS
Mikrobiologian doktorea

A zken asteotan manifestaldi ugari ikusi dira hainbat herrialdetan egun daukagun pandemia mardikatuaren existentzia ukatuz. Mugimendu horri negazionismoa deitu zaio, eta bertako pertsonen, negazionistak (covid-ergelak ere deitu zaie). Talde horietako batzuen hitzetan, koronabirusa

ez da existitzen, eta beste batzuentzat existitu bai, baina ez osasun-agintariak esandako larritasunarekin. Negazionistek proposaturikoa egia balitz, nola azaldu litezke martxotik hona gertatu den guztia, ospitaleetan egon diren gaixokopuru handia edo zoritxarrez hainbeste hildako egotea? Gutariko bakoitzak ezagunak ditu gaixotu egin direnak, eta, tamalez, hil egin direnak ere bai.

Negazionisten iritziz, esate baterako, 5G teknologia zerikusia du birusaren hedapenarekin. Baina teknologia hori uhin elektromagnetikoak dira eta bertatik energia garraiatzen da, besterik ez. Uhin horien bidez zerbait gehiago garraiatu ahalko balitz, zientzia-fikzioan ikusi dugun leku batetik besterako teleportatzeari buruz hitz egin beharko ge-

nuke. Eta hori, agian, noizbait helduko da, baina momentu honetan ezinezkoa da.

Maskaren erabileraren ukazioa ere egin dute: egia da pandemia honen hasieran nahaste handia egon zela, eta osasun agintariak ere ez zetozen bat gai honekin. Baina une honetan ebidentziak argi eta garbi dio maskarak erabiltzeak infekzio-arriskua gutxitzen duela. Negazionistak pilatuta eta maskara gabe ikusten direnean, osasunerako arrisku bat da, euren tzat eta guztiontzat ere bai.

Pertsona batzuek ebidentzia zientifikoa ez onartzea proposatzen dute, azken finean gure interesekoa ez dena baztertu egin nahi dugun leloarekin (maskara deserosoa denez, eraginkorrak direla dioten ebidentzia ukatzen dugu). Baina frogatuta dagoenari begiak ixtea ez da irtenbidea.

Negazionistak

Krisiaren aurrean, egin aikorlagun!

Bizkaiko Foru Aldundiak 26.800 kultura-bonu atera ditu, eta horiek euskarazko tokiko komunikabideon bazkide egiteko ere erabili ahal dira. Izan ere, COVID-19ak sortutako osasun-eta ekonomia-krisiak euskarazko hedabideotan ere badu eragina, eta Foru Aldundiaren ekimenak tokian

tokiko komunikabideon egoerari aurre egiten laguntzea du helburu.

Bonuak Kutxabanken orotarako kutxazainetan eta webgunean eros daitezke. Prozesua oso erraza da: datuak bete,

eta Aikor! Txorierriko aldizkariari dagokion aukera hautatu beharko duzu. Gehienez lau bonu erosi ahalko dituzu. Bonu bakoitzagatik 15 euro ordainduko dituzu, baina benetako balioa 40 eurokoa izango da, aldea Bizkaiko Foru Aldundiak ipiniko baitu. Bonuak 2021 maiatzaren 24ra arte erosi ahalko dira.

Ez galdu Txorierriko euskarazko komunikabide bakarrari laguntzeko aukera, behar dugu eta. Gainera, bonua erosiz gero, aikorlagunoi ez dizuegu 2021eko kuota kobratuko. Eskerrik asko!



BIZKAIA AURRERA KULTURA BONUA

ORDAINDU 15 EURO ETA 40 EURO GASTATU

Zer da?

Euskarazko hedabideen harpidetza bultzatzea helburu duen programa, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik.

Noiz arte erosi?

2021eko maiatzera arte

Non erosi?

BBKren orotarako kutxazainetan
Kutxabanken web orrian

Informazioa:

94 400 28 44



EGIN ZAITEZ
AIKORLAGUN!





Arizmendi zubia konpondu dute Lauroetan

Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak bere webgunean azaldu duenez, Lauroeta auzoko Arizmendi zubia konpondu berri dute. "Urte askoko zubia da eta hainbat kalte zituen. Konpontze-lanak behar-beharrezkoak ziren; gainera, une batez bere erabilera mugatu behar izan zen, nahiko hondatuta baitzegoen", idatzi du. Bere hitzetan, zubia oso garrantzitsua da Lauroetako auzotartentzat, izan ere, hango etxebizitzak, etxeak eta baserriak sakabana natuta daude eta zubia auzotarrak elkarrekin komunikatzeko bidea da. Konpontze-lanek hiru hilabete iraun dute eta udalak 180.000 euro ipini ditu.

Berritze-lanak, Artebe kiroldegian

Uztailan, Artebe kiroldegia berritzeko lanak hasi zituzten Sondi-kan. Udalak 200.000 euro ipiniko ditu lanetan. Konponketa hauek egiten dabiltza: aldagelak berritzea eta gune gardenak atontzea, altzari berriak ipintzea, sarrerako tornuak informatizatzea eta onlineko erreserbak egiteko aukera gaitzea, sistema elektrikoa, berokuntza eta iragazgaiztea berritzea eta padelpistaren iparraldeko gunea ixtea. Lanak urrirako amaituta egotea espero da.



Joseba Gotzonen *Urrundik* singlea, plataforma digitaletan eskuragarri

a: Iñaki Garcia Uribe

Kantautoreak adierazi duenez, lanak euskal diasporaren lana omentzea eta ezagutzera ematea du helburu, izan ere, Euskal Herriatik milaka kilometrora egon, hainbat belaunaldiren bitartez kulturari, folkloerari eta hizkuntzari eutsi diete. "Amerikan hainbat bira egin ondoren, *Urrundik* buruan nuen abestia zen. Beharbada sentimentalismoagatik edo 20 urteetan bizi izandako emozio guztiak barneratzeko beharragatik, orain egia bihurtu da. *Urrundik* zortzigarren herrialdea da, handiena eta nortasun bakarrean beste zazpi herrialdeak biltzen dituen", esan du Loiuko abeslariak.

Gotzonen esanetan, *Urrundik* euskararen eta Hego Amerikako soinu-tresnen arteko fusioa da eta keinua egiten die lau mendeetan milaka euskaldun jaso dituen herrialdeko kulturari eta folkloerari. Hala, lanean *legüero* danborra (Santiago del Estero probintziako soinu-tresnak, Argentina) eta *quena* (Andeetako txirula) entzun daitezke. Gotzonekin batera, Xanpe bateria-jotzaileak, Txarlie Solano baxu-jotzaileak eta Jone Elordy biolontxelo-jotzaileak hartu dute parte *Urrundik* singlean. Era berean, euskal diasporaren abeslariak kolaboratu dute Gotzonekin.

Loiuko musikariak azaldu duen moduan, *Urrundik* lanaren baitan erbestaldia dago, itsasoa, mendia, ihesaldia, bolbora, mina, oparotasuna, herrimina, sentimendua, sustraiak, kultura eta hizkuntza.



ARINKA KASTEGIA
Goiko kalea, 6 DERIO

LH - DBH - BATX.
INGELES - MARRAZKETA
ERROBOTIKA
TAILERRAK / ESKOLA LAGUNTZA

944 544 753 695 78 77 74
www.arinkakopidenda.com arinkakastegia.blogspot.com

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaintza Berrak
Logopedia
Podologia
Kizmasajoa

clínica dental ZAINDUZ horts klinika

Txarriren etorbidea, 19 - Loria | Artebe enikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Ordenantza berriei ekarpenak egiteko aukera Larrabetzun



Larrabetzuko Udalak jakinarazi duenez, urrian 2021erako ordenantza fiskalak onartuko dira. Aurten, diru-laguntza berriak eta udal-zerbitzuak arautzeko, ordenantza berriak proposatu dira eta horiek www.larrabetzu.eus webgunean kontsultatu daitezke. Ordenantzak urriaren 21ean eztabaidatuko dira udal-batzordean, eta hilaren 28ko osoko bilkuran onartuko dira. Herritarrek ekarpenak egin ahal di-

tuzte udaletxean bertan, posta elektronikokoaren bidez edo telematikoki.

2021. urtera begira, eta gaur egungo aparteko egoera kontuan hartuta, gobernu-taldeak udal-tasak eta prezio publikoak izozteko proposamena egingo du. Bestalde, ordenantzen bidez hurrengo gaiak ere arautu nahi dituzte: gazteek etxebizitza alokatzeko diru-laguntza, lehen sektore-rako diru-laguntzak, tximiniak garbitzeko diru-laguntzak, autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak, gazteen lokalak eta hilerriko zerbitzu eta leku publikoaren erabilera.

Bide publikoen katalogoa

Bestetik, Larrabetzun ez dago bide publikoen katalogorik eta hango udalak bideen inbentario ofiziala egin nahi du. Katalogoaren helburuak dira bide publikoen udal-inbentarioa antolatzea, eguneratzea, idaztea, berrantolatzea eta digitalizatzea. Katalogoaren aurreproiektu grafikoa jendaurrean ipini da eta nahi duenak ohar-tarazpenak eta iradokizunak egin ditzake.

Besteak beste, datu hauek jasoko dira inbentarioan: bideen hasiera eta amaiera, luzera, zabaleria, egoera, zein bide mota den, kokapena eta muga, ezaugarri fisikoak, azpiegiturarik dagoen, argazkiak eta planoak. Lana 2021ean amaitzea espero da.



Kultur ekintzak, Larrabetzun

Larrabetzuko Kulturbilguneak kultur ekintzak antolatu ditu urri-rako. Edukiera kontrolatzeko, lekua gorde behar da Anguleri kultur etxean izena emanda (944 558 271) edo kulturbilgunea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita.

Urriak 4, domeka

–18:30 *Matriuska* antzezlan, eskolako aterpean (8 euro).

Urriak 15, eguena

–19:00 Literaturaz Berbetan: Oier Guillanen *VHS*. Anguleri kultur etxean.

Urriak 16, barikua

–19:00 Bertso-saioa, eskolako aterpean (5 euro).

Urriak 17, zapatua

–19:00 Ruper Ordorikaren kontzertua, eskolako aterpean (8 euro).

GABONETAKO LOTERIA

aikor!
txorierriko aldizkaria

14072

Loiuk ez du 2022ra arte terrazei lotutako zerga kobratuko

Josu Andoni Begoña Loiuko alkatetik bere webgunean adierazi duenez, terrazak ezinbesteko bihurtu dira ostalarientzat eta udalak horregatik erabaki du terrazei lotutako tasa aurre eta datorren urtean ez kobratzea. "Sektoreari bultzada emateko".

Begoñak azaldutakoaren arabera, zerga-salbuespen puntual hau aurrera eramanez ahal izateko, udal-ordenantza fiskala aldatu behar izan da. Aldaketan jaso den moduan, terrazei lotutako zerga ez da kobratuko, eta dena normaltasunez joango balitz, zerga 2022an berrezarri liteke. "Era honetan, dirulaguntzez gainera, udalak beste laguntza-mota bat ematen dio ostalaritzari. Izan ere, pandemiaren eraginez, sektorea oso momentu latzean dago: lehenik eta behin, bi hilean itxi behar izan zuten; gaur egun, higie-ne-eta desinfektatze-neurri zorrotzak ezarri behar dituzte".

Begoñak gogora ekarri du hau ez dela udalak ostalaritzari laguntzen dion lehen aldia. "COVID-19ak sortutako krisiari aurre egiten laguntzeko, 1.000 euroko laguntza bana eman genien dendariei, ostalariei eta autonomoei. Horrezaz gainera, terraza ipintzeko lekuri ez duten establezimenduei baimena eman diegu terraza plazetan eta aldameneko leku publikoan ipini dezaten. Bestalde, "bonoloiuak" ipiniko ditugu martxan uda ondoren: 20 euroan erosiko dira, baina 30 euroko balioa izango dute". Neurriak Loiu On! indarberritze-plan estrategiko barruan daude.



Deriokoa lehen udala izan da Athletic Club Fundazioarekin bat egiten

Derioko Udalak jakinarazi duenez, Athletic Club Fundazioarekin bat egin duen lehen udala izan da. Ekimena zeharkako lankidetzaren eredu oinarritzen da eta ondasun komunari eta fundazioaren garapen jasagarriaren helburuei lotutako hitzarmenak ditu ardatz. Derioko Udalak ongile moduan sinatu du akordioa eta fundazioari gizartea hobetzeko lan egiten laguntzeko konpromisoa hartu du.

Ibaiganeen batu ziren hitzarmena sinatzeko Esther Apraiz, Derioko alkatea; Nekane Aiarza, alkateordea; Aitor Elizegi, Athletic Clubeko presidentea eta Juan Carlos Ecoreca, Athletic Club Fundazioko presidentea.

Bizkaiko gainerako udalek ere bat egin dezakete ekimenarekin, eta helbu-

rua da fundazioaren eta udalen arteko akordioak ofizialtzea eta gehitzea, fundazioaren gizarte-, ingurumen-, kirol- eta kultura-ekitaldiak udalerriri horietan egin ahal izateko. Besteak beste, Derioko Udalak ekintza hauetan azaldu du interesa: Thinking Football Film jaialdia, irakurtze-tailerrak eta klubak, Bertsoderbia, adingabeen babesaren inguruko heziketa teknikarientzat eta familientzat, nutrizioari buruzko mintegiak, kirol-psikologiari lotutako heziketa, adinekoentzako ergonomia-saioak. Bestalde, Derioko Udalak eta Athletic Club Fundazioak zeharkako beste lankidetzaren bidez batzuk aztertze-asmoa dute, fundazioarekin lan egiten duten Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako elkarteei ere on egiteko.



GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, beheka B
48150 SONDIKA
634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

PIRRITX, PORROTX ETA MARI-MOTOTS ZAMUDION .- Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Euskal Astea antolatu ohi du maiatzean, baina aurten, COVID-19ak eragindako pandemia dela eta, ekitaldiak bertan behera gelditu ziren. Ekitaldien artean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen ikuskizuna izan zen. Nolanahi ere, eta euskara elkarteak jakinarazi duenez, pailazoak urriaren 16an izango dira herriko kiroldegian, umeak zein gurasoak gozarazteko. *Bizi dantza* ikuskizuna arratsaldeko 18:30ean hasiko da. Lagatzu euskara elkarteak azaldu duen moduan, edukiera mugatuta izango da eta protokolo zehatz bati jarraituko zaio, osasun- eta segurtasun-neurri guztiak betetzeko. Sarrerak sei euro balioko du euskara elkarteak bazkideentzat; eta zortzi euro, gainerakoenentzat.



Euskal Herria kalearen atzealdea berrurbanizatzen dabilta Derion



Berrurbanizatzeko lanak Euskal Herria kaleko laugarren eta seigarren atarien parean egiten dabilta, u-itxura duen bidean hain zuzen, eta abuztuan hasi zi-

ren. Derioko Udalak azaldu duenez, lanak udalerriko irisgarritasuna hobetzeko eta bermatzeko helburuarekin bat doaz eta, hortaz, eremuko urbanizazioa hobetuko

da, oinezkoen mugikortasuna lehenetsiko da eta aparkalekuak berregokituko dira.

Zehatz-mehatz, bi motatako lanak egingo dira: alde batetik, egungo zoladuraz guztiz eraberrituko da eta plataforma bakarra ipiniko da oinezkoentzat eta ibilgailuetarako; bestetik, eraikinen eta lokalen alboko oinezkoen gunea zabalagoa izango da eta bakarrik oztopo-zutoinek mugatuko dute. Era berean, beste aldeko aparkalekuak berregokitu egingo dira leku zabalagoa egoteko eta, hortaz, oinezkoek eta inguruko lokalei lehentasuna emateko. Euskal Herria kalea eta eraikinen atzealdea lotzen dituzten espaloiko eta oinezkoen pasabideko zoladura ere berritu egingo da eta bertan udalerriko gainerako lekuetan dauden baldosak ipiniko dira.

Udalak 96.937 euro ipiniko ditu lanean. Horiek Excavaciones y Obras de Riesgo SL enpresa egiten dabil eta azarorako edo amaiteza espero dute.

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikuntak, orokorrean
Autokor konpainiak
Mantentze garbi-ikuntak
Bulegoak eta lokalak
Oliniko enbierako garbikerak
Bantistak
Zabur biketa

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai lezagu Facebook-en.

KAFETEGIA

IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Trafikoa baretzeko lanak egiten dabil-tza Uribe kalean, Derion. Lanek bide-segurtasuna areagotzea dute helburu, eta, horretarako, abiadura jaitsi egingo da: orduko 50 kilometrotik 30era. Lanak Derioko Trafikoa Lasaitzeko Proiektuaren barruan daude. Uribe kaleaz gainera, proiektuak Ganbe eta Larrabarri kaleetan ere ibilgai-luen abiadura moteltzeko lanak aurreikusi ditu.

Esther Apraiz Derioko alkatearen esanetan, "zenbait hobekuntza egin nahi ditugu, udalerriko hainbat bidetako trafikoa lasaitzen laguntzeko; batez ere Derioko iparraldean eraiki berri diren kaleetan, oinezkoen segurtasuna handitzeko. Aste honetan Uribe kaleko lanak hasi ditugu, eta datozen hiletan Ganbe eta Larrabarri kaleetako lanak hasiko dira". Udalak 96.795 euro ipiniko ditu Uribe kaleko lanetan; eta 21.691 euro eta 11.170 euro, Ganbeko eta Larrabarriko lanetan hurrenez hurren.

Bide-segurtasuna handitzeko, Derioko Udalak ibilgailuen abiadura orduko 50 kilometrotik 30era jaitsiko du. Izan ere, azaldu dutenez, "50 kilometro orduko abiaduran, ikuseremua urruneko puntu estu baterantz bideratzen da, hurbileko inguruan zer gertatzen den kontuan hartu gabe; 30eko abiaduran, berriz, ikuseremuak alboetan dagoena hartzen du kontuan".

Esandakoaren arabera, lanen bidez gidariaren pertzepzioa eraldatu nahi da, galtzada estutuz –ondo seinaleztatuta eta argiztatuta egongo da– eta abiadura jaitsita. Horretarako, besteak beste, txikanak, pasabide goratuak eta abiadura murrizteko

Bide-segurtasuna areagotzeko lanak, Derioko Uribe kalean



bandak erabiliko dira aipatutako kaleetan. Zehatz-mehatz, lan hauek egingo dira Uribe kalean: galtzadaren erdian uharteak ipinita, hiru estugune sortuko dira eta erreirik estuena 2,6 metrokoa izango da (gaur egun, 3,5 metroko erreiak daude). Hiru oinezkoen babesgune egingo dira:

horietako bik 20 metroko luzera izango dute, eta besteak, 30 metrokoa. "Zabalera zorrotz horiek direla eta, ibilgailuak oso abiadura motelean gurutzatzen dira". Bestalde, Uribe, Bestorrene eta Goikoetxe kaleek gurutzatzen diren lekuan zoladura goratuko da.

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

PELUKERIA ESTETIKA
LARRABETZU

Anguleri nº 2 Bajo - 48195 LARRABETZU
Tel. 944 558 144

elekma
LARRATZEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK, TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK

Lehenengo markak • Pieziorik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Txartelari etorbidea, 25-3. N. • 48180 Leio
T: 944 539 232
www.elekma.es

ITURRIGANE, 2
SONDIKA

EGUNERO
8:00-22:00

635584941

Sondigarbi
GARBITEGIA

sondigarbi

IRATXO
gazotegia

larta pertsonalizatuak
trufak
tortak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 5. lonja • Sondika, 48150 • 94 645 89 19

Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu



"Etxean den-denak inguratzen gaitu: familia, lana, une onak eta txarrak, teknologia, sukaldea, pentsamenduak, liburuak, berriak, egunak, orduak, minutuak... Etengabe. Kanpoan, bestalde, hots sakonak askatasuna aldarrikatzen du: Kalera, kalera, bizitza kalean!"

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

XURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxo: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

SARRIKOLA
OGITEGIA

Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

TABERNA
GAZTE

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

sarraila-denda
Txorierri

ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@centraletxorierri.com
www.centraletxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Unkiola, 4. lorja
48160 Deno

"Hau amaitu egingo da. Eutsi gogor!"

t: Gaizka Eguzkitza / a: G.A.

Zelan Derion? Zelan agertu zen publikoa: zuzeneko ikuskizunak ikusteko grinarekin ala beldurti, segurtasun-neurriak direla eta?

Publikoak ederto jokatu zuen. Patxi da nire bakarriketako pertsonaia, *casero* bat, jatorra, hurbila. Guztiok ezagutzen dugu Patxi bezalako morroi bat eta jendeak atsegin du bera. Bakarriketa segurtasun-protokoloari jarraituz egin genuen –maskarak, distantziak...– eta, egia esan, arraroa izan zen, bai publikoarentzat, bai niretzat. Giroa desberdina izan zen, zeren normalean bakarriketak jaietan egiten ditut. Eta jaietan jendearen jarrera desberdina da. Baina tira, aurrera egin behar dugu.

Nolako eragina izan du koronabirusak zure bizitzan?

Eragina handia izan da, noski. Lanari dagokionez, beste artistei gertatu zaien moduan, hainbat saio bertan behera utzi behar izan ditut. Hala ere, etxean gelditu behar izanak familiarekin egoteko aukera eman zidan. Izan ere, itxialdia agindu baino lehen lau hilabete eman nituen etxetik kanpo saio bat grabatzen. Oro har, ezin naiz kexatu, lana dudalako. Pixkanaka-pixkanaka joan behar dugu. Ez dakit noiz arte ibiliko garen horrela, baina kultura arloan, gauzak egiten jarraitu ahal dugu. Eta egin behar ditugu, hainbat lagunok kulturatik jaten dugulako. Hau amaitu egingo da. Eutsi gogor!

Eskarmentu handia duzu bakarriketak egiten. Bereziki gustatzen zaizu horiek antzeztea?

Bai, 25 urte daramatzat bakarriketak taularatzen. Aktoreontzat eroso da, batez ere gaur egun, koronabirusaren garaian. Azken batean norberak idazten du,

GORKA AGINAGALDE | aktorea

Batzuek ez dute beraren izena ezagutuko, baina Gorka Aguinagalde aktorearen aurpegia aspaldian da ezaguna. Izan ere, gasteiztarra hainbat eta hainbat pelikula, antzezlan eta teleaiotan agertu da. Uztailean, itxialditik atera berri ginenean, Aginagaldek bakarriketa taularatu zuen Derion. Patxi, bere *alter ego*ak, barre egiteko gogoia berreskuratzen lagundu zigun.



"Oso 'teatreroa' naiz eta gustura nago agertokian. Publikoa eta norbera, ez dago besterik, ez dago mozketarik"

Komedia drama baino gehiago egin dut, baina sariak batez ere dramengatik eman dizkidate

norberak antzezten du.... Ni oso *teatreroa* naiz eta oso gustura nago agertokian. Publikoa eta norbera, ez dago besterik, ez dago mozketarik. Beste euskarriak desberdinak dira eta bakoitzak badu xarma: zinegintzan, esate baterako, teknika oso garrantzitsua da, hau da, eszena ederra egin dezakezu, baina argia behar bezala jarrita ez badago, eszena errepikatu egin behar da. Dena dela, aktorea naiz eta edozein euskarritan nago eroso.

Zertan ibili zara lanean itxialditik atera ginenetik?

Zorionez, lanpetuta ibili naiz. Mugitu beharra dago, familiak jan behar duelako (kar-kar). Euskalduna Jauregian bertan behera utzi behar izan genuen saio bat, eta bere ordeaz, *A gussstto* aurkeztu nuen Gurutze Beitiarekin batera. Era berean, Arriaga Antzokian, *Concierto en ja mayor* egin genuen. Jendea pozik sentitu zen eta antzezlan gehiago egitea espero dugu. Azkenik, *Benidorm* teleaia irailean estreinatu da telebistan. Ea arrakasta duen eta bigarren denboraldia egiten dugun...

Koronabirusak mugak jarri dizkigu guztioi. Eta aktoreoi, azken hileotan aldatu da lan egiteko modua?

Baita. Antzerkigintzan lana antzekoa da, baina telebistan erabat aldatu da lan egiteko era. Eta orain ez zait hainbeste gustatzen, zeren ez dut lankideekin egoteko aukerarik. Filmatzean, aktoreok denbora tarte libreak ditugu, txolarteak, eta horiek lankideekin hitz egiteko erabiltzen nituen. Gaur egun, aldiz, filmatzera heldu bezain pronto, maskara, eskularruak eta jantzien dizkizute, eta eszena egin arte isolatuta zaude, bakarrik. Ezin zara jendearekin egon. Ez zait hori gustatzen.

Zure azken lanetako bat, *Alli Abajo* teleaia oso arrakastatsua izan da. Zer eman dizu zuri?

Jende pila batek ikusi du, bai. Oso gustura ibili nintzen horretan lanean, taldekideak familiakoak bezalakoak zirelako. Lan horri esker, ziur asko beste gauza batzuk egiteko aukera izango dut. Gainera, orain famatua naiz, jendeak kaletik ezagutzen nau (kar-kar). Arraroa da,

baina ohore handia da, zeren jendea oro har jatorra da.

Batez ere komedia egin duzu. Erosoago zabiltza genero horretan, besteetan baino?

Komedia drama baino gehiago egin dut, egia da. Hala ere, sariak batez ere dramak egin izanagatik eman dizkidate.

Ez dakit, aktorea naiz eta papera gustatzen bazait, edozein gauza egiteko prest nago: drama, komedia...

Ibilbidea

Gorka Aguinalde Lopezek (Gasteiz, 1966) 22 urte zituela hasi zituen aktorea izateko ikasketak. Lehenengo urratsak Arte Eszenikoen Tailerrean (TAE) eman zituen, eta ondoren inprobisazioa, interpretazioa, *klown*, gorputz-adierazpena eta akrobazia ikasi zituen. Aginagalde eskarmentu handia du bakarrikizketak egiten. Izan ere, 25 urte daromatza testuak idazten, antzezten eta zuzentzen.

Antzerkigintzan ere hasi zen duela 30 urte, eta zuzen-dari zein aktore ibili da arlo horretan. Telebistan eta zinean ere hainbat saiotan hartu du parte: lehenengoari dagokionez, *Luna*, *Doctor Mateo*, *Los Hombres de Paco*, *Alli abajo*... Bigarrenari begira, besteak beste *Airbag*, *Año Mariano*, *La Comunidad*, *Frágil*, *la Buena Nueva*, *Negociador* eta *Errementari*.



"Lehenengo Mailan jokatzeko ametsar

t: Gaizka Eguzkitza / a: Josu Uribe

Andoni ala Oli esango dizut? Non-dik datorkizu Oli ezizena?

Berdin dio: bata zein bestea erabil dezakezu. Oli ezizena Danok Bat taldeko entrenatzaile batek jarri zidan, gol asko sartzen nituelako. Garai hartan, Oliver eta Benji marrazki bizidun japoniarrak oso famatuak ziren eta protagonista, Oliver, goleatzaile fina zen. Hortik dator.

Zelan hasi zinen futboleko jokatzen?

Kalean, Sondikan, lagunekin. Lehenengo taldea Gorondagane eskolako izan zen eta handik, Danok Bat taldera, Bilbora joan nintzen.

Eta gero, Athleticera. Goiz-goiz sartu zinen taldean, ezta?

Bai, bederatzi urte nituela sartu nintzen Athleticen. Ia ibilbide osoa egin nuen bertan, kimu mailatik, Bilbao Athleticera, Bigarren B mailara. Txikitik hainbat txapelketa jokatzen genituen Euskal Herrian zehar eta proba batzuk gainditu behar izan nituen Athleticen sartzeko. Nirekin batera, Danok Bat taldeko beste zazpi mutil fitxatu zituen Athleticen urte hartan.

Zelan esperientzia? Athleticetik zu fitxatzea berezia izango da...

Oso polita da Athleticen jokatzeko, noski, desberdina da. Nire bigarren etxetzat jotzen dut. Izan ere, txikitik, arratsaldero 19:00etatik 22:00etara bitartean Lezaman egoten nintzen. Gogoratzen dut Erandio Goikoko Markel Etxebarriarekin joaten nintzela autobusez.

Polita dela diozu, baina baita gogorra ere, ezta?

Bai, oso gogorra. Oso nekatuta heltzen nintzen etxera eta umea baino ez nintzen, beste gauza batzuk ere egin nahi nituen. Baina, oro har, esango nuke merezi izan zuela. Futbolari hobea izaten ez ezik,

*"Athleticen jokatzeko
polita zein gogorra
da, baina merezi du,
bertan balioak irakasten
dizkizutela"*

ANDONI FERNANDEZ OLI | I futbolaria

Andoni Fernandezek (Sondika, 1996) bizitza osoa eman zuen Athletic Cluben, baina duela urte bi talde zuri-gorritik atera behar izan zuen. Lehenengo geldialdia Bigarren B mailako Amorebieta taldean egin zuen eta, hurrengo urtean, Hirugarren mailako Barco taldean, Galizian. Gurtura ibili da bertan, baina aurren Bigarren B mailara itzuli nahi du eta talde bila dabil.

pertsona hobea izaten ere laguntzen dizute Athleticen, balioak irakasten dizkizutela: errespetua, esfortzua, lana...

Ia azken urratsera heldu zinen. Zer gertatu zen, azkenera, lehenengo taldean, ez iristeko?

Lagunarteko partida batean jokatu nuen lehendabiziko aldiz lehenengo taldean eta askotan haiekin entrenatzen nuen. Zer gertatu zen? Ez dakit, entrenatzaileek beste jokalaririk batzuk aukeratu

zituztela. Dena dela, Lehenengo Mailan jokatzeko ametsari eusten diot.

Athleticetik alde egin zenuenean, bertan jokatzeko aukerarik eman ez izana leporatu zenion klubari.

Bai, oharra argitaratu nuen horren berri emateko. Ez zitzaidan gustatu Athleticetik atera behar izatea, taldea nire etxea zelako. Klubeko langileek primeran tratatu ninduten, baina azken urteotan ez nuen gehiegi jokatu eta ez zidaten beste



i eusten diot"

talde batean utzita jokatzeo aukerarik ere eman. Horregatik kexatu nintzen. Gaur egun uste dut horrek ikasten eta azken batean hazten lagundu zidala.

Athleticekin hainbat jokalaria eta entrenatzaile ezagutu zenituen eta gaur egun horietako batzuk lehenengo taldean aritzen dira: Cordoba, Nuñez, Iñigo Vicente, Gaizka Garitano...

Guruzeta eta Villalibrekin ere jokatu dut. Bai, Gaizka oso entrenatzaile hurbila izan zen, nirekin asko hitz egiten zuen. Berari esker izugarri ikasi nuen, gehiegi jokatzen ez nuen arren. Eta besteak oso onak ziren, noski: Nuñez oso indartsua zen eta argi zegoen lehenengo taldera iritsiko zela. Era berean, Iñigo Vicente jokalaria ezberdina da. Besteek ikusten ez dutena Iñigok ikusten du. Ea bere maila erakusteko aukera ematen dioten!

Duela urte bi, Athletic utzi zenuen eta Amorebieta taldera joan zinen, Bigarren B mailara. Zergatik utzi zenuen taldea denboraldi erdian?

"Garitano oso hurbila izan zen nirekin. Berari esker izugarri ikasi nuen, gehiegi jokatzen ez nuen arren"

Hasieran poz-pez ibili nintzen, baina jokatzeari utzi nion eta nire ordeaz, askotan gertatzen den moduan, ni baino eskarmentu gehiago zuen jokalaria bat jarri zuten. Beraz, denboraldiaren erdian, urtarilean, onartu nuen Galizia aldetik etorritako eskaintza, Hirugarren mailan jokatzeo.

Gogorra izan zen 22 urte zenituela Ourensera joateko erabakia hartu izana?

Kostatu zitzaidan, noski. Zornotzan dena nuen eskura: klub polita, familia gertu-gertu... Hala ere, aldaketa bat behar nuen, futbol zein pertsona mailan hazten jarraitzeko. Iker Revueltak nirekin jokatu zuen gaztetan eta bera bertan zegoen,

"Kostatu zitzaidan Galiziara 22 urte nituela joatea, baina, aldaketa bat behar nuen, hazten jarraitzeko"

beraz, horrek lagundu zidan erabakia hartzen.

Zelan Galizian, Barco taldean?

Oso ondo. Urte eta erdia eman dut bertan eta oso gustura ibili naiz. Lezama zoragarria da baliabide guztiak eskura dituzulako, baina Barco taldean nire etxean sentitu naiz, oso hurbilak izan dira, primeran tratatu naute. Gainera, ia beti jokatu dut eta iaz oso denboraldi ederra egin genuen: laugarren gelditu ginen ligan eta igotzeko kanporaketa Compostelaren kontra galdu genuen. Klubekoek kontratua luzatzeko eskaintza egin zidaten, baina ezetz esan nien. Izan ere, beste aurre-erapauso bat eman nahi dut eta Bigarren B mailako talde batean jokatu nahi dut.



Andoni Fernandez talde batzuetan ibili da. Goiko argazkian Athleticen kamiseta du jantzita; ezkerrean, goiko aldean, Barco taldekoa; eta ezkerrean beheko aldean, Baskoniakoa.





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larabide Heziketa eta Sigueren Hezikuntzarako Ikastetxea

Unitzaga Ibaia Kalea, 1
48160 - DEPIO | Tel.: 94 403 40 50 | info@txorierri.net
Fax: 94 403 40 51 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

EUSKO JAURLARITZA  **GOBIERNO VASCO**

Ekonomia Gaitasun Garapen eta Adrestitutza SAILA | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS





40 urte, milaka txori



Maskulinismoa edo maskulinitatea?

Denbora luzez ari gara maskulinitate hitza behin eta berriz entzuten, baina benetan badakigu zertaz hitz egi-ten ari garen? Maskulinitatea eta maskulinismoa gauza bera da?

Maskulinitatea gizon izateko jarrera, rol eta portaera ezberdinak dira. Hau da, eraikuntza sozial eta sinbolikoa da. Baina bizi garen gizartean, maskulinitate eredu ezberdinak dauden arren, azkenaldian gehien entzuten dena, "maskulinitate berriak" dira. Maskulinitate berrien helburua, sistema patriarkala aldatzea da, feminismoaren bila joanez.

Maskulinitate berriak, maskulinismo-
ren korrontearen parte dira. Baina zer da
hori? Maskulinismoa, gizonek bere burua
gizon izatea zer den galdetzearen ondo-
ria da.

Gizonezkoek euren buruaren ingur-
uan hausnarketa egiterakoan, zalan-
tzatan jartzen dituzte ordura arte ikasita
eta barneratuta dauzkaten portaerak eta
rolak. Hortaz euren maskulinitatea dese-
raikitzen dute tradizioz izan duten pribile-
gioekin amaituz.

Honetaz guztiaz hausnartu ahal iza-
teko, Txorierriko alkate eta zinegotziek,
Mankomunitateak antolatutako presta-
kuntza saioak jaso dituzte irailaren 21 eta
28an.

Euskara ikasteko dirulaguntzak (2019-2020 ikasturtea)

Eskaerak aurkezteko epea eta
tokia: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean
argitaratu ondoren, eskabideak aur-
kezteko epea 2020ko azaroaren 2ra
artekoa izango da.

Eskabideak Mankomunitatean,
Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Son-
dika eta Zamudioko udaletxeetan
edo Mankomunitateko web orrian
eskuratuko dira eta Txorierriko Man-
komunitateko Euskara Zerbitzuan
edo udaletxeetan bertan aurkeztuko
dira.

LAN EGITEKO EUSKALDUNAK BEHAR DITUZU?

Klase partikularren irakasleak nagusien zaintzaileak umeen zaintzaileak
dendariak tabernariak...

Lan bila zabilta?
Zatoz Mankomunitatera!



¿NECESITAS ESTOS SERVICIOS EN EUSKERA?

Profesorado de clases particulares, cuidado de personas mayores, cuidado de
niños y niñas, personal para comercios, camareras y camareros...

¡Ven a la Mancomunidad!



Txorierriko Mankomunitatea: Txorierriko etorbidea 9 behea. Derio 94-454.03.50



Euskaraldia: Txorierriko ariguneak

Euskal Herri osoan zehar eta baita Txorierri ere, mota guztietako entitateek Euskaraldian izena eman dute. Txorierriko herri ezberdinetako batzordeen laguntzarekin, gure herrietako hainbat tabernak, dendak eta elkarteek euren ariguneak identifikatu dituzte eta Euskaraldian talde bezala parte hartzeko prest daude. Adibidez Loio "Mekano hornikuntzak"; Derion "Piperdun flamenko elkarte", Lainomendi dantza taldea, Arteaga taberna, San Isidro okindegia eta Derioko futbol taldea; Lezaman "Josune" janari denda eta "Aitziber Longarai farmazia"; Sondikan "Aitor harategia"... Arigune horiek, azaroaren 20tik abenduaren 4ra euskaraz lasai aritzeko lekuak izango dira. Adi ibili eta ea zure herriko lokaletan ariguneen ikurrak aurkitzen dituzun!

Hamabost egunetan zehar denon artean hizkuntz ohiturak astinduko ditugu, beraz, euskalduna bazara, sartu "euskaraldia.eus" web orrian eta eman izena ahobizi edo belarriprest rola aukeratuz. Urrian zehar herri ezberdinetan informazio mahaiak egongo dira eta bertan ere izena emateko aukera izango duzue.



Txorierriko

23. Ipuin lehiaketa

Idazteko ez dago adinik
ANIMA ZAITEZ!

Lanak entregatzeko epea: azaroaren 27ra arte, liburutegietan edo Mankomunitatean

Bizkaiko Batzar Nagusien webgunean jasota dagoanez, Bizkaiko Jaurerria arautzen eben Foruek. Hainbat arau-mota biltzen ebezan lege orokor baten antzekoak ziran eta, aldi berean, lege konstituzionala nahiz kode zibila eta zigor-kodea be baziran. Jatorria bizkaitarren usadio eta ohituretan dago eta, hortaz, Foru-zuzenbidea herri-borondatean oinarritzen da. Foru Zaharra 1452an jaso zan idatzira, eta Foru Barria 1526an.

Beste aitormen batzuen artean, Foruak aiton-semetasun unibertsal aitoritzen eban bizkaitar guztientzat. Hala, besteak beste, Bizkaiko biztanle guztiak bardinak ziran legearen aurrean, bizkaitarrak torturatzea galarazota egoan eta ez egoan zergak ordaintzeko beharrik. Ganera, eta soldadutzari jagokonez, bizkaitarrak Luiaondoko Malato zugaitzeraino (Araba) egozan Jaunen agindupean; handik aurrera soldata jaso behar eben, gizon askeak ziran eta.

Bestalde, legeren bat indarrean sartzeko, Foru-baimena behar zan. Jaunen agintea murrizteko bidea zan hori, bidegabekeriak ez egoteko eta gobernariak Foruak errespetatzea bermatzeko.

Aitatutako webgunean azaldutakoaren arabera, Foru-baimenagaz batera, Jaunek foruen zina egitea ezinbestekoa zan Foruak osorik gordeko zirala bermatzeko. Halan, bere lehen gobernu-ekintzan, Jaunak bizkaitarren legeak gorde egingo ebazala zin egiten eban: "Nik, Bizkaiko Jaunak, zin egiten dot zintzorro ta egitan zaindu, gorde eta gordeazo egingo dodazala Bizkaitarren askatasun, eskubide, usuario eta ohiturak, bardin Lur-Edegikoak zein uri eta uribilduetakoak, zein Enkarterri eta Durangaldekoak, orain arte lez izan dabezan moduan, euren borondatea horixe da-ta".

XIII. eta XIV. mendeetatik aurrera, legegintza-zereginagaz batera, Batzar Nagusien eginkizunetako bat Jaunen zina onartzea eta goratzea izan zan. Bizkaiko Jaun moduan onartu baino lehen, Jaunek lau lekutan egin behar eben Foruen zina: Bilboko Uribilduaren ateetan, Larra-betzuko San Emeterio eta San Zeledonioren eleizan, Gernikako Zugazpean eta Bermeoko Santa Eufemia eleizan.

Honek izan ziran Bizkaiko Jaunetako batzuk, eta Andrak be bai: Iñigo Lopez (1040-1077), Jn. Lope Diaz de Haro (1124-1170), Jn. Diego Lopez de Haro

Foruen zina egitea

"Ibilbide historikoak" programaren barruan, irailean Bizkaiko Foru Aldundiak bisita gidatua antolatu eban Zin-bidera. Antxina, Espainiako errege-erreginen eta bizkaitarren arteko harremana adosteko eta sendotzeko, Bizkaiko Jaunak foruen zina egiten eban eta, horretarako, Zin-bideari jarraitzen eutsen. Zin-bidea Bilbon hasi eta Bermeon amaitzen zan; Txorierritik be igaroten zan.

Lezamako Andra Mari eleiza



Zamudiotorre





(1237-1254), And. Maria Díaz de Haro I (1311-1322 eta 1326-1333), Jn. Muño (1351-1352), And. Juana (1352-1359) eta Jn. Tello (1366-1370). Foruen zina Bilbon egin ondoren, Bizkaiko Jaunek eta Andrek Bermeorako bidea Abril menditik hartzen eben eta Zamudiotik, Lezamatik eta Larrabetzutik pasau ei ziran. Zin-bidearen ibilbideak Bizkaiko Jaunen eta Andren pausuei jarraitzen deutse eta, ganera, bidean dagozan ondare nagusietan geldialdia egiteko aukerea dau ibiltariak: esate baterako, Zamudiotorre eta San Martin eleizea, Zamudion; Lezamako dorrea, Kristo Sakratuaren Gurutz-tokia eta Andra Mari eleizea, Lezaman; eta uria eta Goikoelexeako San Emetario eta San Zeledonio eleizea, Larrabetzun. Azken eleiza horretan, Bizkaiko Jaunek Foruen zina egiten eben bigarren aldiz, Gernikarako bidea hartu baino lehen. Zin-bidearen zati batek itsasbazterreko Done Jakue bideagaz eta Gaztelutik Bermeorako bideagaz bat egiten dau.



Kristo Sakratuaren Gurutz-tokia, Lezama

Ikastetxera itzultzea COVID-19aren garaian

Eskolara itzultzea ezohikoa izan da aurtengo irailean: COVID-19ak eragindako pandemiak ikasturtearen hasiera ez ezik, haren martxa ere baldintzatuko du eta ziurgabetasuna eguneroko kontua da ikasgeletan. Ikastetxeek osasuna eta segurtasun-neurrietara egokitu behar izan dute eta, ohiko eginkizunez gainera, ikasleek zein irakasleek protokolo eta neurri berriak barneratu beharko dituzte. Ez da ikasgai erraza izango.

t: I. Marina / a: Irekia eta Zamudioko eskola

Zamudioko eskolan, esaterako, 224 ikasle, 24 irakasle eta jantokiko bederatzi langile daude. Belen Mellado zuzendariak kontatu digunez, ikasturtea topera hasi dute, kezka eta buruhauste asko dituztela. "Besteak beste, jantoki-eta patio-orduak eta sarrerak eta irteerak antolatzeaz ibili gara arduratuta, eta abuztuan hasi ginen lanean". Lekurik eza da eskolaren arazo nagusia eta, hortaz, zaila da Eusko Jaurlaritzaren protokoloan ezarritako 1,5 metroko distantziari eutsi ahal izatea. "Ikasgeletan, ikasleen artean ahalik eta tarterik handiena egoten ahalegindu gara, baina oso gela txikiak dira eta ezinezkoa da gomendatutako segurtasun-tarteari eustea. Bestalde, nahiz eta txandak egin, jantokian arazo bera dugu".

Higiene-neurriei dagokienez, eskolaren zuzendaritzak garbitzaile bat gehiago eskatu dio Zamudioko Udalari, eskolan egun osoan egon dadin, eta Udalak kontratatatu egin du. "Barandak desinfektatzen ditu, komunak, igogailua, gela partekatutak... Halaber, udalak gel-banagailuak ipini dizkigu, eta guk ere gel hidroalkoholiko batzuk erosi ditugu; bestetik, berandu ailegatu baziren ere, Eusko Jaurlaritzak 1.000 maskara eta gel batzuk eman dizkigu".

Melladoren esanetan, behar bada, irakasle gehiago beharko litzukete Haur Hezkuntzan. "Ikasgelak ez dira oso handiak eta 20 ume inguru daude elkarrekin. Horrezaz gainera, ez da erraza

M: "Ikasleen artean ahalik eta tarterik handiena egoten ahalegindu garen arren, ezinezkoa da segurtasun-tarteari eustea"

umeak zaintzea, adibidez, patioan daudenean, komunera joan behar badute...". Horren harira, komunera joateko txandak ere egin dira eta maila bakoitzak zein komun erabili behar duen ezarri da. "Gero, normala den moduan, larritasuna dagoenean umeak komunera joaten dira, baina eskuak garbitzeko-eta orduak ipini dira".

Ikasturtea oso ziurgabetasun handiz hasi dutela aipatu digu. Bere hitzak jaso orduko, eskolan ez dute COVID kasurik izan; hala ere, probak egin behar izan dira, ikasle batzuek sukarra izan dute eta. Gai-xorik badaude, ezin da umerik eskolara eraman; nolana ere, ikastetxe guztietan gela bat atondu behar izan da, ikaslea eskolan dagoela gaixotzen bada edo sukarra badu, bertan bakartzeko gurasoak bere bila joan arte. "Eskolara sartu baino lehen, egunero hartzen diegu tenperatura ikasleei, eta gela behin eta berriro erabiltzen dugu eskuak garbitzeko. Horri lotuta, esan beharra dago termometroak falta izan ditugula: Eusko Jaurlaritzak bakarria bidali digu eta besteak geuk erosi behar izan ditugu".



Irakasleen eskuetan

Umeek ezohiko eta arau berriez betetako ikasturteari egin behar diote aurre. "Esate baterako, ume bakoitzak bere materiala erabili behar du, baina umeak dira eta zaila da neurri guztiak zorrotz beteaztea". Arrakala digitalaz ere mintzatu da Mellado. "Eusko Jaurlaritzak ez du eskolara ezer bidali, eta gurasoen elkarrekin chro-



LEJARRENE JÄTETXEA
Garaioitza auzoa, 12 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

 **Sendatu**
Fisioterapia
Liliana Diaz Cherry
elkargokide-zk.: 992

Aretxalde, 68 behea
48196 LEZAMA

688 763 457

 LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10

mebook-ak erosi ditu laugarren, bosgarren eta seigarren mailetakoko ikasleentzat, berriro eskola etxetik jaso behar badute ere”.

Zamudioko eskolako zuzendariaren aburuz, eskolara itzultzea ez da segurua izan. “Dena gure eskuetan, zuzendaritzaren eta irakasleen eskuetan, utzi dute. Irratian entzun nuen segurtasun-neurri zorrotzak ezarri zirela, eta pentsatu nuen «Bada, berandu ailegatu diren maskarak eta gelak izango dira». Izan ere, irakasleak, hezitzaileak eta jantokiko monitoreak ohiko irizpideak kontuan hartuta bidali dituzte eskolara; hau da, ikasle-kopurua kontuan hartuta, eta ez COVID-19a”.

Naiara Gonzalez Gorondagane Sindikako gurasoen elkartearen kidea da eta, azaldu digun moduan, ikasturtea beldurrez hasi dute. “Kutsatzeko beldurrez, zalantza beteta eta, beste ikastetxe batzuetan gertatu den bezala, lehenago edo geroago ikasgelaren bat itxi beharko dela eta etxera joan beharko dugula jakinda”. Beldurra alde batera utzita, balantze positiboa egin du ikasturtearen hasierari eta Sindikako eskolaren kudeaketari buruz.

“Pozik gaude, gogoia dagoela eta gauzak ondo egiten ari direla ikusi dugulako. Adibidez, patioetan seinaleak margotu dira umeek nondik ibili behar duten jakiteko, eta burbuila-taldeak ere egokiak direla uste dugu”.

Gonzalezen hitzetan, ikasturtearen hasieran ez zen ume guztientzat jantokizerbitzurik egon, baina arazoa bigarren astean konpondu zen. Ikasle guztiek eskolan bazkaldu ahal izateko, jantokiaz gainera beste gela bat atondu zen Eusko Jaurlaritzaren irizpideei jarraituta. Hala ere, Jaurlaritzak ez zuen eskolak aurkeztutako txostena onartu, eta lehen astean bakarrik Haur Hezkuntzako umeek, beka-dunek eta autobusez etortzen diren ikasleek –Loiukoak– erabili ahal izan zuten jantokia. Hori zela eta, ahalegina egin zen beste gela bat atontzeko eta bigarren astetik aurrera jantoki-zerbitzua eskaini ahal izan zaie eskolako ume guztiei”. Sondikako ikastetxean 300 ume inguru daude.

Guraso elkartearen kideak aipatu digunez, eskolan leku-arazoak daude, baina moldatu egin dira. “Denetarik dago eskolan, baina uste dut Eusko Jaurlaritzak

ez duela esan zuena bidali: esaterako, eskolak termometroak erosi behar izan zituen eta tutore bi ikasturtea hasita sartu dira”. Gonzalezen ustez, eskolara itzultzea beharrezkoa izan da umeentzat zein gurasoentzat. “Umeek beren lekua eta errutinak behar dituzte. Gainera, pandemiaren eraginez bizitakoa oso gogorra eta luzea izan da haientzat”.

Leku-arazoa

Kerman Ibarra Txorierri Institutuko zuzendariaren berbetan, ikasturte gogorra izango da aurtengoa, eta hasiera are gogorragoa izan da. “Alde batetik, ikasturte normal bat antolatu behar da: eskolak, irakasleak, tutoreak...; eta bestetik, hori osasun-neurriak kontuan hartuta”.

Institutuan 800 ikasle inguru daude, 90 bat irakasle eta bost jantokiko langile. Arazorik handiena lekuarena dute. “Delegatuei eta agintariei jakinarazi diegu gure arazoa zein den, eta gauza batzuk kudeatu ditugu. Adibidez, Batxilergoko bigarren mailako 80 ikaslek Kultur Birikan jasoko dute eskola ikasturte honetan. Hala eta guztiz ere, ikasle asko egoten jarraituko

G: “Ikasturtea beldurrez eta lehenago edo geroago ikasgelaren bat itxi beharko dela jakinda hasi dugu”

I: “80 ikaslek eskola Kultur Birikan jasoko duten arren, ikasle asko egoten jarraituko da”

I: “Protokoloak irakasleei eta ikasleei azaltzen joan ahala, konturatzen zara oraindik ere gauza asko lotu barik daudela”





da eta, gainera, hiruhileko honetan institutua handitzeko lanak hasiko dira. Lanak behar-beharrezkoak dira leku-arazoari konponbidea emateko – sei modulu jarrita ditugu, eta lehenengo mailakoentzat, zazpi gela herri-eskolako eraikinean–, baina ondorio txarra ekarriko digute, leku gutxiago izango dugu eta”.

Institutuko jantokia urrian zabalduko da, eta horrek ere arazoa ekarriko du. “Normalean 80 ikaslek bazkaltzen dute

jantokian, baina oso txikia da. Segurtasun- eta osasun-neurriak kontuan izanda, aldi berean bakarrik 30 lagun egon daitezke han, eta, hortaz, hiru txanda antolatu beharko dira. Zein ordutan bazkalduko dute azken txandakoek?”.

Edozelan ere, egungo egoera aldakorra da oso eta, horregatik, aurreikuspena astetik atera egiten dute. Izan ere, eta adibidea ipintzearen, institutura sartzeko eta bertatik irteteko protokoloa uztailan

egin zuten, baina orduan idatzitakoak ez zuen irailean balio izan. “Protokoloak eta neurriak zeintzuk diren irakasleei eta ikasleei azaltzen joan ahala, konturatzen zara oraindik ere gauza asko lotu barik daudela eta oso zaila dela 1.000 pertsonen artean sortzen diren berezitasun guztiak lotzea. Era berean, konturatzen zara zuk gauza batzuk arautu ahal izan arren, beste batzuk bakoitzaren ardurapean daudela, eta oso zaila da”. Dena dela, Ibarrek argi du,

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



**TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA**



**2020-21 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK**

**ZURE ZAIN GAUDE!
HURBIL ZAITEZ GURERA!**



**Zure bizitza
EUSKARAZI!**

 Herriko Plaza, 3 - DERIO  Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38  euskaltegia@txorierrri.eus

O: "Bizikidetza-talde egonkorak sortu ditugu; hau da, eskola-ordutegian beti elkarrekin egongo diren ikasle-taldeak"

O: "Hartutako neurriak zentzuz hartzen eta errespetatzen badira, ikastetxeak leku seguruak dira"

nahiz eta "partida" gaitza izan, institutuko langile guztiek euren lana egingo dutela, etorriko diren baldintzak zeinahi ere diren.

Ikastetxeetara segurtasunez itzultzea ikasturte-hasieraren erronka nagusia izan da; Ibarrenen iritziz, berriz, hori ezinezkoa da. "Hau denboraz egin beharko zen, eta abuztuan jende askok egon beharko zuen lanean, ikastetxeoi arauak eta egin beharreko kudeaketa lehenago jakinarazteko. Komunikabideetan gauza bat saldu digute, baina errealitatea da ez dutela gurekin lan egin; ez dira gurekin elkartu jakiteko zeintzuk diren gure zailtasunak. Nire ustez, ez da ondo egin, eta orain zailagoa da egitea. Gero, jakina, aldaezinak diren gauzak daude, leku-arazoa kasu".

Ibarrek irakasle eta ikasle guztien jarrera bikaina azpimarratu du. "Guztiok gaude neurriak ateratzeko prest eta guztiok dugu oso argi gure helburua hau aurrera ateratzea dela. «Partida» galtzen badugu, ez da gogorik ezagatik izango".

Leku-arazo handirik izan ez duten arren, Txorierriko Politeknika Ikastegian ere ahalegin handia egin dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren protokoloa euren egoerara egokitzeko. "Guk bakarrik ikasgela handiago bat atondu behar izan dugu, maila batean ikasle asko zeudelako eta, beraz, leku handiagoa behar genuelako. Bestela, ikastetxera sartzeko eta ikastetxetik ateratzeko bideak seinaleztatu ditugu, eta bizikidetza-talde egonkorak sortu ditugu; hau da, eskola-ordutegian beti elkarrekin egongo diren ikasle-taldeak",



azaldu du Josu Orbe zuzendariak. "Atse-denaldiak ere zatikatu ditugu eta, noski, musukoa erabili behar da eta eskuak ondo garbitu sarritan. Halaber, tailerretako eta laborategietako ikasleek erabilitako tresnak desinfektatu egin behar dituzte".

Urduri

Orberen esanetan, arazoak edota zailtzak protokoloak ezartzeko orduan izan dituzte, Hezkuntza Sailaren irizpideak orokorrak baitira. "Beste aldetik, horrek gastu handia ekarri digu eta, gainera, beste pertsona bat kontratatu dugu garbiketara egiteko. Hezkuntza Sailak esan zuen laguntzak egongo zirela, baina hitz hauek esaterakoan ez dakigu ezer".

Politeknika Ikastegian 450 ikasle inguru eta 47 langile daude. Guztiek oso urduri zeudela hasi dute ikasturtea. "Izan ere, ez genekien nolakoa izango zen... Alabaina, esan behar dut ikasle gehienek oso jarrera ona erakutsi dutela: hasiera-hasieratik azaldu dira parte-hartzeko eta laguntzeko prest, eta jarrera hori lagungarria izan da irakasleak lasaituz joateko eta gauzak aurrera ateratzeko". Lerro hauek idazterakoan, ikastetxean ez dute COVID-19 kasurik izan, baina Orbe badaki arriskua beti

dagoela. "Dena dela, nire ustetan, hartutako neurriak zentzuz hartzen eta errespetatzen badira, ikastetxeak leku seguruak dira. Argi dago ezin dela segurtasun osoa bermatu, akatsak eta deskuiduak egon baitaitezke, baina arduraz jokatzuz gero, ikastetxeak oso seguruak dira".

Egunak joan eta egunak etorri, animoak lasaituz joan dira Politeknikan. "Dena egunean-egunean egin behar da, eta erne egoteari utzi barik. Guk gure programari eusten eta hezkuntza duala eskaintzen jarraituko dugu, eta neurri berriak ezarri behar badira, gauzak etorri ahala egingo dugu".

Ikasgeletara itzultzea ez da batere erraza izan aurtengo ikasturtean eta ikasleek zein irakasleek eta gurasoek ahalegin estra egin behar dute egoerara moldatzeko eta ikasturtea protokoloen neurriei eutsita gaindituz joateko. "Nire iritziz, ohiturak mantentzea lortzen dugunean, errazagoa izango da. Baina ikastetxean ez ezik, kalean ere arduraz jokatu behar da eta hori denon erantzukizuna da. Denok izan behar dugu arduratsuak: lankidetzak apur batekin hau aurrera eraman ahal dugu, ikasketa-prozesuan inongo geldialdirik egon gabe".



TALDEA



GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

BABESPEKO
APARTAMENTUAK
 600 euro
 asistentzia sanitarioa (24 ordu)

ZURE NEURRIRA



EGONALDIAK
EGOITZEAN
 egunean
 gauean
 asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
 LOIU 48180
 (Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

Itzuli gara, euskaraz egiteko prest

Udako oporraldiaren ondoren, Txorierriko berbalagunak indarrak berritu ditugu eta gogotsu ekingo diogu datorren ikasturteari. Ziurgabetasun handiko garaia da, baina berbalagunok jarraitu nahi dugu irteerak, kafea, paseoak eta hainbat esperientzia euskaraz partekatzen. Izena emateko epea zabalik dago jadanik; zu baino ez zara falta!

a: Berbalagun

Aurreko ikasturteetan moduan, Txorierriko herri guztietan berbalagun-taldeak osatzen ahaleginduko gara, eta COVID-19ak sortutako pandemiari aurre egiteko osasun- eta segurtasun-neurriei eutsiko diegu, jakina. Beraz, ez ahaztu zure maskara ekartzea eta hasi lehenbailehen lagun artean euskara praktikatzeko. Gainera, nahiago baduzu, solasaldiak bideodeien bidez egiteko aukera ere egongo da.

Zertarako berbalagunekin bat egin? Euskaraz aritzeko eta euskaraz hainbat ekintza gozatzeko: ibilaldiak, erakusketak eta erakustaldiak, turismoa, musika, antzerkia, artea, natura, herriak, hiriak, paseoak... hau da, euskaraz bizitzeko. Horrez gain, euskara-maila hobetuko

duzu eta konturatuko zara pixkanaka-pixkanaka euskaraz era naturalean egingo duzula. Eta mendizalea bazara, mendi-taldeko kideekin Bizkaiko Itzulian parte hartu ahal duzu asteartean. Era berean, kontuan hartuta gizakiok izaki sozialak garela eta pandemiaren aurretik, eta are gehiago pandemiaren ostean bakardadea eta beldurrak arazo itzela direla, berbalagun-taldeak errezeta on-onak dira horiek guztiak gainditzeko. Ez pentsatu gehiago eta berbalagun-komunitatearen partaide izan. Taldeak kideen beharrezanetara egokitzen dira eta, hortaz, ez duzu arazorik izango ez egutegiaren aldetik, ez ordutegiaren aldetik.

Bestalde, beharbada, seme-alabekin eta beste gurasoeekin nahiago duzu euskaraz aritu. Kasu horretan ere erraztasunak emango dizkizugu, aurreko ikasturteetan

moduan, aurtengoan ere gurasolagun-taldeak osatuko baitira. Nola funtzionatzen dute? Gurasolagunak eskola ostean batu ohi dira, baina gaur egungo osasun-egoera dela-eta aldaketa txiki batzuk egingo ditugu. Hala, eskolan bertan bildu beharrean, aire zabalean, parkean esaterako, batuko gara han euskaraz jolasteko, besteengandik ikasteko eta bururatzen zizkizun ekintza guztiak egiteko. Aukera polita baino politagoa da hizkuntza-arloan ere seme-alaben eredia izateko eta umeei eskolaz kanpo ere euskara hizkuntza bizia dela ikus dezaten.

Esanak esan, euskara-maila hobetu nahi baduzu edota euskaraz bizi nahi baduzu, ez galdu aukera: Txorierriko berbalagunak eta gurasolagunak zain dituzu. Berriz ere euskaraz aritzeko prest.




**berba
lagun**

telefonoa:
63575 35 95

e-maila:
txorierri.berbalaguna@gmail.com

antolatzaileak:
TOTOAN TEEF
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

Txorierriko BERBALAGUNA

11 AUKERA EUSKARAZ PRAKTIKATZEKO



ANIMA ZAITEZ!!!

MINTZATALDEAK - GURASOLAGUNAK

*Astean behin - ordubetez
paseoan - kafetegian - parkean*



INFORMAZIOA ETA IZEN - EMATEA

635.75.35.95

txorierri.berbalaguna@gmail.com

[Instagram/ berbalagun_txorierri](https://www.instagram.com/berbalagun_txorierri)

LAGUNTZAILEAK

ANTOLATZAILEA

BABESLEA



"Negoziatzen hasteko, eskatu diegu 600 kaleratzeak atzera botatzea"

JORGE BARRIUSO | ELA sindikatuko ordezkaria ITP enpresan

t/a: Aitor Aspuru Saez / araialde.eus

Zein da ITP enpresaren egoera?

Abuztuaren 31n zuzendaritzak jakinarazi zuen langileen kopurua murriztuko zuela % 15ean talde osoan. Lau mila beharginetik 600 kaleratu nahi dituzte. ITP SAU Zamudioko enpresari eta Madrilgo beste biri eragingo lioke erabakiak. Zamudion 1.269 gara eta Madrilgoekin, guztira, 2.000 langile baino gehiago gara. Negoziazio-mahaiaren lehen bileran esan digute 194 lankide botako dituztela Zamudion. Gu horren aurka gaude. Uste dugu behin-behineko egoera dela eta ez estrukturala. Bestelako neurriak har daitezke, beharginak bota orde.

Nola doa negoziazioa?

Hasteko, esan behar dut enpresak negoziazio-mahaia sortu duela hiru lantegiekin eta guk ez dugu uste hori zuzena denik. Zamudiotik ezin ditugu ordezkatu Madrilgo langileak eta eurei buruz erabaki eta alderantziz. ELAk Zamudion gehiengoa dauka, 23 ordezkari 10 ditugu, baina mahaian hiru ordezkari besterik ez dugu eta 13 dira guztiak. Argi eta garbi indarra galdu dugu. Zuzendaritzak argudiatu du sozietate gisa eratu behar dela mahaia.

Zein sindikatu daude zuekin mahaian?

CCOO eta UGT. Zamudion CCOOK bost ordezkari ditu eta UGTk, aldiz, zortzi. Madrilgo ordezkari guztiak Ajalvirreko zentrokoak dira eta UGT eta CCOOekoak. Horrez gain, Alcobendasen beste zentro bat dauka enpresak, baina ingeniari eta bulegoko langileak direnez, ez dute ordezkariarik.

Barriuso ITPk Zamudion duen zentroan lan egiten du eta ELAko ordezkaria da langile batzordean. Pasa den astean 194 behargin kaleratuko dituztela iragarri zien zuzendari-tzak eta grebak antolatu dituzte asmo horien kontra.



"Zamudion 194 langile kaleratuko dituztela esan ziguten lehen bileran"



*"Egia da COVID-19aren
ondorioz lan
karga murriztu dela,
baina jarduera
berreskuratuko dugu"*

Zeintzuk dira zuen proposamenak krisialdiari aurre egiteko?

Gure ustez enplegua erregulatzeko espedienteak luzatu daiteke eta aukera egokia izango litzateke ikustea tarte horretan zerbaite hobe negoziatu daitekeen. Egia da COVID-19aren ondorioz, lan karga jaitsi dela, baina badakigu jarduera berreskuratuko dela. Horrez gain, enpresak sekulako irabaziak izan ditu azken urteotan, eta horien zati bat bideratu daiteke kaleratzeak ekiditeko. Horregatik deitu ditugu sei greba egun. Mobilizazioak arrakastatsuak izan dira, bereziki, tailerretan. Bulegoetan ez dakigu zein den jarraipena, jendeak telelana baitauka.

Nolakoa da giroa enpresan?

Zuzendaritzak 194 langile botako dituela iragarri ostean, badirudi motibazioa igo dela mobilizatzeko. Pozik gaude, esan bezala, tailerretan greben jarraipena handia izan delako. Nahiago genuke CCOO eta UGT grebara batuko balira, hori bai.

Abuztuan kaleratzeak egongo zirela esan zuten eta pasa den astean Zamudion 198 izango zirela adierazi zuten, zeintzuk dira zuen aurreikuspenak gatazka honetan?

Gu grebetan zentratzen ari gara eta ez dugu baztertzeko mobilizazio gehiago deitzea eta hori indartzea. Ez dakigu nola erantzun duen enpresak, guk hau guztia negoziatu nahi dugu, baina mahai gainean kaleratzeak egon gabe. Amildegia hori kendu nahi dugu eta dauden aukerak aztertu, egon badaude eta. Irtenbidea adostu daiteke.

a: www.ela.eus



Langileen % 15eko murrizketa

AIKOR! aldezkaria harremanetan jarri da ITP enpresarekin, baina ez digu erantzunik eman. Hala ere, uztailaren 23an lan-gatazkaren inguruko oharra eskegi zuten euren webgunean, www.itpaero.com helbidean, alegia. "COVID-19k sortutako pandemiak inoiz ez bezalako eragin izan du hegazkingintzaren merkatuan. ITP Aero enpresa sektore horretako kidea da eta guk ere galdu dugu lan-karga handia. Esate baterako, aurten Rolls Royce enpresak 450 motor egiteko asmoa zuen, baina azkenean 250 baino ez ditu egingo", azaldu du enpresak.

ITP Aeroren hitzetan, "egitura-aldaketera" eta "txikiagoa den merkatu berri batera" egokitu behar dute. Beraz, "tamalez", lantegi guztietako langileen kopurua % 15 gutxitzea proposatu dute. "Hegazkingintzaren

krisi okerrenari aurre egin behar diogu eta, atsekabe handiz, doikuntza hori iragarri behar dugu. Krisia hasi zenez, lan-kargaren beherakada ahal den neurrian arintzeko neurriak lantzen ibili gara. Neurri horiek erabilgarriak izan dira epe laburrean enplegua babesteko, baina ez dira jasangarriak epe luze-
ra. Gaur iragarritako kopurua ITP Aero enpresa indartsua eta lehiakorra izaten jarraitzeko epe ertainerako plan baten barruan dago. Inpaktu soziala muggatzeko eta enpleguak ahalik eta gehien babesteko gabilta lanean. Industria berreskuratze eta teknologian inbertitzen jarraituko dugu", esan du Carlos Alzola ITP Aeroko CEOak. Era berean, ITP Aerok adierazi du eskura dauden enpleguaren aldi baterako babes-planak erabiliko dituela, "zamaren beherakada koiunturala denean".





EDIKTUA

Euskadiko Elkargo Ohoretsuko eta Bilboko Barrutiko notario JOSE PABLO IRACHETA UNDAGOITIAK, Galdakaon bizi naizen honek,

OHARTARAZTEN DUT: Notariotza honetan, JUSTO MENICA MENDIOLA jaunaren ABINTESTATO JARAUNSLEAK IZENDATZEKO NABARITASUN-AKTA hasi da haren jaraunsle legalak hauek direla ziurtatzeko: bere anai-arrebak, ISABEL eta TEODORO MENICA MENDIOLA ANDEREA eta JAUNA; bere ilobak, JOSU eta PEDRO MARIA MENICA LARRABIDE JAUNAK; MIREN IZASKUN eta IRATXE JAUREGUI ANDEREA; eta IRAYA MENICA JAUREGUI ANDEREA.

Ediktua argitaratu eta 20 egun balioduneko epean, interesdunak Galdakaoko notariotzan agertu ahal izango dira (Juan Bautista Uriarte kalea 51, behe), bulego-orduetan, izapidetaren aurka egiteko edo beren eskubideak defendatzeko egokitzat jotzen dutena alegatzeko.

Galdakaon, 2020ko irailaren 21ean.

EDICTO

JOSE PABLO IRACHETA UNDAGOITIA, Notario del Ilustre Colegio del País Vasco y Distrito de Bilbao, con residencia en Galdakao.

HAGO CONSTAR: Que en esta Notaria se ha iniciado ACTA DE NOTORIEDAD DE DECLARACIÓN DE HEREDEROS ABINTESTATO de DON JUSTO MENICA MENDIOLA con la finalidad de acreditar la notoriedad de que sus hermanos DOÑA ISABEL y DON TEODORO MENICA MENDIOLA; sus sobrinos DON JOSU y DON PEDRO MARIA MENICA LARRABIDE; DOÑA MIREN IZASKUN y DOÑA IRATXE JAUREGUI; y DOÑA IRAYA MENICA JAUREGUI, son los herederos legales de la causante.

Durante el plazo de veinte días hábiles a contar de la publicación podrán los interesados comparecer en la Notaria de Galdakao, calle Juan Bautista Uriarte, número 51-Bajo, en horas de despacho, para oponerse a la tramitación de la misma o alegar lo que estimen oportuno en defensa de sus derechos.

En Galdakao, a 21 de Septiembre de 2020.

Udako zaporea



"Gurutze-bidea", Igor Barcia Solabarrieta.

Altzora Sondikako euskara elkarteak udako argazki-lehiaketa antolatu du 10. aldiz, eta orotara 40 lan jaso dituzte. Jon Goikouria Larrabeiti argazkilaria epaile ibili da eta irabazleztzat Itsasne Zubiri sondikoztarrak Derion egindako argazkia aukeratu du. Zubiriren argazkiaz gainera, beste bederatzi argazki hautatu ditu Goikouriak. Argazkiak ikusgai ipiniko dira azaroan Sondikako liburutegian, eta batzuk orrialde hauetara ere ekarri ditugu. Beraz, oraindik ere udako zaporea izango dugu ezpainetan.




"Lasaitasunaren askatasuna", Alberto Gainza, Asturiasen aterata.



Irabazlea: "Nongoa zara?", Itsasne Zubiri, Derion aterata.



"Prestige gogoan",
Mari Carmen
Alvarez, Muxian
aterata (A Coruña).



"Galiziako edertasuna", Jesus
Enrique Collantes, Gondomarren
aterata (Pontevedra).

Txorierriko Txepetxa AEK euskaltegia



- Maila guztiak: A1, A2, B1, B2, C1
- Talde txikiak eta giro ona
Eskarmentu handiko irakasleak
- Herrian bertan ikasteko aukera
- Autoikaskuntza
- Online ikastaroak

MATRIKULA ZABALIK

Gorbea kalea 5, behea, Derio
94 454 39 67 / 607 59 87 94

txepetxa@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

HABE (Mala egaitasuna)

BIZKAIKO ALDUNDIA
Euskara-eskura txarola

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

LARRABETZUNO UDALA

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

**ELORRIETA
INSTALACIONES**

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

J Martina proiektua oso momentu latzean eman zenuten ezagutzera.

Oso momentu latzak izan dira eta izaten ari dira. Guk, hala ere, etxean igaro behar izan genuen denbora proiektua lantzeko aprobetxatu nahi izan genuen, eta horrela izan zen. Zuzenekoekin hasia ezinezkoa bazen ere, denbora hartu genuen proiektua aurkezteko eta konposatzeko, baita, genituen baliabideekin, abesti bat eta bere bideoklipa grabatzeko ere. Hasiera arraroa izan den arren, genituen baldintzei ahalik eta probetxu handiena ateratzen saiatu gara.

Zein da taldearen abiapuntua?

J Martina proiektua duela urte eta erdi hasi zen, base elektronikoen bidez musika egiteko gogoak bultzatuta. Javiren etxean elkartu ginen, baseak sortzeko materiala eta ezagutza berak baitzituen, eta, hala, Aneren eta Kattalinen ahotsen bitartez gustuko genituen melodiak sortzen hasi ginen, haien artean nahiko desberdinak ziren abestiak ateratzen zihoazela. Bestalde, taldearen asmoa gure arduetan oinarritutako musika proiektu bat garatzea da.

Ezohiko doinuekin etorri zarete: musika elektronikoa, autotunea... Beldurrez ibili zarete proiektua aurkezteko orduan, ala konfiantza osoz?

Badakigu jende asko ez dagoela soinu elektronikoak entzuten ohituta, eta, ohitu bitartean, egiten duguna arraroa egingo zaiela; beste batzuek, ordea, ez dute gustuko izango, besterik gabe. Hala ere, oso pozik gaude proiektuak jaso duen erantzunarekin, orokorrean oso positiboa izan delako eta pentsatzen genuen baino jakin-min handiagoa piztu duelako. Beste aldetik, soinuei baino, agian, erritmoei izan diegu beldur. Azken finean, nahiko soinu organiko eta "errazak" erabiltzen ditugu eta ez daude azken urteetako abestietan entzuten diren etatik urrun. Erritmo aldetik, hemen luzaroan egon den musika-estilo hegemonikotik irteteagatik, zailantza gehiago izan ditugu; baina inoiz ez beldurrik.

Lau kanta kaleratu dituzue; baten bat konfinamenduan sortua?

Pasa den ikasturtearen hasieran hasi ginen abestiak konposatzen, eta orain arte atera ditugunak zein kontzertuetan jotzen ditugunak konfinamendua heldu baino lehenago sortuta genituen. Dena dela, egia da konfinamenduan abestiak hobeto lantzeko aprobetxatu genuela,

"Hemengo musika-estilo h zalantzak izan ditugu;

J Martinaren soinu elektronikoak konfinamenduan eza-gutu genituen *Mundu zahar* eta *Beste zerbait* abestien es-
kutik; geroago, *Desira* eta *Su* kantak etorri ziren. Proiektua
Ane eta Kattalin Barcena larrabetzuarrak eta Javi Jorajuri-
riak (Barañain) osatzen dute.



"Bizi dugun garaiak eta errealitate kapitalistak kezkatzen gaituzte, beraren biolentziak eta dakarren miseriak"

eta Beste zerbait abestia, adibidez, garai hartan grabatu genuen etxean genituen baliabideak erabilia: ahotsa, esaterako, mugikorrarekin grabatu genuen.

Zeintzuk dira J Martinaren ardurak?

Abestiak konposatzerakoan, galdera asko planteatzen ditugu: Zertaz abestu? Nori? Nola? Bizi dugun garaiak eta errealitate kapitalistak kezkatzen gaituzte, beraren biolentziak eta dakarren miseriak; eta letrak errealitate horretan kokatzeko era izan daitezke, baita bere isla ere. Bes-

"Publikoak berotasun handia erakutsi badigu ere, beste baldintza batzuetan jo ahal izateko gogo handia dugu"

te errealitate bat posible dela badakigu-nez, horri ere abestu nahiko genioke.

Autoekoizpenaren alde egin duzue, zergatik?

Autoekoizpenaren alde onak eta txarrak batera doaz. Badirudi askatasuna autoekoizpenaren sinonimoa dela, prozesu osoan erabakiak norberak hartzen dituelako, baina askatasunaren falta ere bada, gure gaitasunen mugek ekoizpenean eragina dute eta; ziur asko, lana eskuordetuz gero, muga horiek ez lirateke hain nabariak izango. Alde ekonomikoa ere kontuan

egemonikotik irteteagatik, baina inoiz ez beldurrik"

Musika- amalgama

Musika elektronikoa egin arren, eta estilo horretako erreferenteak badituzte ere, hala nola Della-fuente, Albany, Alizz eta Ibeyi, J Martinaren taldekideek askotariko musika-taldeak entzuten dituzte. "Belako, Kuraia, Willis Drummond, Anari, TOC, Itoiz... Hainbat estilo-tako musika entzun eta entzuten dugu hirurok. Javik, esaterako, Ska talde batean eta rock talde batean jo zuen; eta Kattalin talde akustiko batean ibilia da, baita punk talde batean ere".



a: Madalen Paniagua

hartzekoa da: autoekoizpenaren gastua askoz baxuagoa izan arren, egin behar diren ordu guztiak balantzan jarrita, diferentzia erreala ez dago hain argi. Hala eta guztiz ere, autoekoizpenaren alde egin dugu: kide batekin, Nikorekin, Javi grabazio-estudioa prestatzen dabil, Bobby Records, eta horretaz baliatu gara abestiak grabatzeko. Erabakia ikaste-prozesu handia da Bobby Recordsentzat zein guzretzat.

Oso estetika bereziko bideoklipak grabatu dituzue.

Abestiak irudi bati lotuta kaleratu nahi ditugu, kantari osotasuna lortzen laguntzen dion irudi bati lotuta hain zuzen. Ez dugu estetika finkorik; ez dugu uste J Martina estetika zehatz batekin erlazionatu daitekeenik: abesti bakoitzaren nortasunarekin bat egiten duen irudia baliatzen saiatzen gara. Bestalde, Bobby Recordsen barruan, Javik bideoklipak ere egiten dituenaz, lagunen laguntzaz baliatuta, bideoklipak ekoiztearen prozesua erraztu zaigu.

Zelan atera dira udako kontzertuak?

Udaberriko kontzertuak bertan behe-
ra utzi behar izan ziren, eta horrek planak aldatu zizkigun; hala ere, zuzenekoak hobeto prestatzeko aukera izan dugu, eta, egia esan, zorte handia izan dugu, udan hainbat kontzertu eman ditugulako: Gas-teizko gaztetxean, Donostiako Piratetan, Astran, Zarautzeko gaztetxean... Oso gustura ibili gara, baina oso baldintza arraroe-tan hasi gara zuzenekoak egiten, ezarritako baldintzek publikoarekin hartu-eman-a guztiz oztokatzen baitute, eta giro erosoa sortzea denontzat zailagoa delako. Ahal izan den heinean, publikoak berotasun handia erakutsi badigu ere, beste baldin-tza batzuetan jo ahal izateko gogo handia dugu.

Kontzerturik baduzue datozen hi-leetarako?

Hainbat kontzertu ditugu lotuta: bes-teak beste, Donostian, Zaldibian, Zuma-rragan eta Urnietan. Badakigu, momen-tuz, ezarritako baldintza eskasekin jarraitu beharko dugula zuzenekoak ematen, eta, ahal den neurrian, kontzertuei probetxua ateratzen saiatuko gara. Hala ere, espero dugu laster beste baldintza batzuetan jo ahal izatea.

Eta abestirik?

Asmoa da ditugunak kaleratzea, eta horiek prestatzen gabiltza; eta zuzene-koak lantzen ere bai. Laster konposatzeari ekingo diogun arren, nahiko lasai hartzea pentsatu dugu, prozesuan sakonki mur-gildu ahal izateko.

Einer Larrabeiti Zaratek norbere buruarekin eta gainerakoekin dugun jokabideari buruz hausnartzen du. Egunerokotasunean aurki ditzakegun egoera eta sententzioak ardatz hartuta, hainbat gairen inguruan mintzatuko da sail honetan.

Ez da inteligentzia kontua

t: Einer Larrabeiti / a: www.azlmsc.org

Kontzientzia eta pentsamendua ez dira bardinak. Hemen eta orain bizi garela jabetzen garenean, konziente gagoz. Ez dogu horri buruz pentsau behar, beste barik, halantxe da. Errealidadea horixe da. Halan da be, errealdadeari ihes edo kontra eginez ibiltzen gara sarritan gizakiok. Beharbada, eboluzionatu dan garuna daukagula dakigunetik, goi-mailako izakiak garela sinesten dogu, Lurra planeta geure jabetza dala, bai eta itsasoa, lurra eta ganerako izakiak be, gure tresna edo apaingarri moduan erabiltzen doguz eta. Idea faltsu eta erratuakaz jokatzten dogunean, ez dogu onartu gura izaten (arrisku bat balitz bezala). Nahiago dogu inkonzienziaren etxean geratu guk asmatutako argudioak egia dirala sinisten saiatzen. Erlijioak pribilejioa badakart, amen.

Gizakiok erdigunea garelako sinesmenaz aparte (giza-zentrismoa), norbera erdigunea dala be uste izaten dogu (egozentrismoa). Egia da badakigula disimulatzen eta "ni" berbea ez dogula letra larriz idazten gure testuetan. Ez gara horren zuzen eta gardenak, aizue. Itxurak mantendu ala hil. Hala, ahoz berba egiten dogunean be zaila da jakitea maiuskulaz ari garen ala ez, baina igerri egiten da. Txakur batek makillajez beteta be txakur izaten jarraituko dauen moduan, justifikazinoz beteriko mozorroa janzteak ez dau gure pentsetako era egozentrikoa kamuflatzen.

Berez, egozentrismoa gure bizitzako lehen urteetan garatzen da, bizirauteko instintu moduan: ni arreta-puntua edo erdigunea banaz eta kexatzen banaz, bizirik

Zegaitik idazten ete dogu maiuskulaz gure izenaren lehenengo letrea? Eta guk izendatutako edo sortutako edozerena be bai? Ikasi dogu minuskulaz idaztea bururatu ezkerro, hori dala eskolan nota baxuagoa aterateko errazoa eta sententzia.



atarateko behar dodana emongo deustie. Kontuz, ez da norbere gauzei lehentasuna emotea edo norbere burua maitatzea, baizik eta ni neu guztiaren erdigunea naze-la sinistea, eta halan izan beharko bazan moduan jokatzeta. Azalpen horren bidez, ni-zentrismoak bere funtzinoa daukala ulertu geinke. Baina baita, gero, askatu egin behar dogula be. Aspaldi joan zalako benetako umetxuak ginen garaia.

Batzuk kontzeptu horreek soilik besteengan identifiketan ditue. Beste batzuk euren parte be badala onartu eta garatzen eta heltzen hasten dira. Zelan? Dana, norbere izena be, minuskulaz "idazten" hasita. Horrek ez gaitualako "txikiago" egiten, baizik eta guztiaren pareko. Baina eskolan bezala, gaitasuna izan arren ikasi nahi ez dauenak errepikatu egingo dau. Zein da zure hautua?

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldeko one
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

- Especialitate guztiak zentro bakar batean
- Aurrekontua doan
- Especialitatea: umeak

ArtileArtean

Mungialde. 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Berba hutsek bete dute pandemia

Euskara nekatua

t: Juan Luis Goikoetxea / a: www.65ymas.com

Onar dezagun: pandemiak gainditu egin gaitu. Diodana ez da onartzen. Zazpi egiten da, gauza bera errepikatu, berba hutsekin bete burua. Egunkarietatik telebistara eta whatsappetatik Facebookera bazabiltza, irakurle, berehala ohartuko zara nola diren guztiak elkarri kopiatzen ari. Joseba Sarrionaindiak azalduko dizu JAKIN aldizkarian komunikabideek kultura homogeneizatu egiten dutela, eta Eguzki Urteagak idatziko digu egunkarian komunikabideak elkarren artean homogeneizatzen ari direla. Denek azaltzen dute istorio bera. Desberdintasun bakarra alde formalean erakusten dute; sakonean berdintsuak dira.

Jokabide horrekin, baina, burua eduki daiteke ase, ez urdaileko gosea. Eta burua ere ez hain erraz. Zeren, interpretazio barik ez dago informaziorik. Hitz hutsak, albiste piloak, ez dira nahiko geuk interpretatzen ez badakigu, benetan zer den egia ulertzeko gai ez bagara. Horretarako,

ostera, garia eta galtsua bereizi behar da, egia eta *fake-news*a. Informazioarekin batera, entretenigarriak, denbora-pasagarriak nahiz erdi-egiak saltzen dizkigute. Irunetik Cadizera denok batera jokatu behar dugula entzungo dugu irratian edo irakurriko; baina ez, Mauletik Karrantzara jokatu behar dugula batera. Albistegietan Euskararen Herria ez da batera jokatzen lekua, ez da unitate didaktikoa.

Euskal hiritarrok ikusle, entzule, pasibo bihurtu gaituzte. Pandemia urgenteak baimena eman dio erdara hegemonikoari euskara isilarazteko. "Aizan! salbuespen egoeran bizi gaitun!" –erantzun digu erdaldunak. "Giro horretan, nekatuta nago!" –dio, berriz, euskarak. Azkenean, eskolako euskara "txerrien askara" bota da; abeslariak, bertsolariak, kobazulora!

Euskaldunok bagara nor geure burua gobernatzeko; homogeneizatzetik bereizteko; euskara indarrean jartzeko. Has gaitzeen sasi-informazioaren sasiartetik masustak eskuratzen!



Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK – ESTETIKA-ORTODONTZIA

Areitza doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Uribe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Elena Lombana (elk.553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)

RPS / 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

Iz
Txantxangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

Ille-apaindegia
estetika

L. LEIZAOLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OK
OAKLAND
ENGLISH

Atun- eta barazki-lasagna

a: www.recetasgratis.net

Osagaiak:

- 18 lasagna-plaka (aurrekozinatuak badira, beratzen ipini beharko dira)
- 3 atun-lata
- Kipula bat
- Azenario bi
- Piper gorri bat
- 200 g tomate-saltsa
- Koilarakada bi oliba beltz
- Gaztai arraspatua
- Orio eta gatza

Bexamela egiteko:

- ½ litro esne
- Koilarakada bi urun
- Hiru koilarakada gurin
- Gatza eta espeziaren bat (gura izanez gero).

Prestetako area:

Lehenengo eta behin, bexamela prestatuko dogu. Ontzi baten, su motelean, gurina ipiniko dogu eta guztiz urtzen danean uruna gehituko dogu. Ondo eragingo dogu ore homogeen bat lortzeko eta urin-pikorrik egon ez daitezkan. Ondoren, esne apur bat (edaltontzi erdia) botako dogu eta nahasten jarraituko dogu. Dana ondo nahasita dagoanean gainerako esnea gehituko dogu eta eragiten jarraituko dogu harik eta saltsea krematsu egon



arte. Gatz apur bat be botako dogu, eta gura izanez gero, espeziaren bat, esatera-ko, piperbeltza eta oreganoa.

Barazkiak txikitu eta garbituko doguz eta zartagin baten erregosiko doguz 10-15 minutuan. Bitartean, olibak txikituko doguz. Atuna, tomate-saltsea eta olibak botako doguz zartaginera eta ondo eragingo dogu dana. Labea 200 graduan berotuko dogu.

Erretilu baten sei pasta-xerra ipiniko doguz eta hareen gainean osagaien nahastearen erdia eta bexamel apur bat ipiniko doguz; beste sei pasta-xerra ipiniko doguz gainean, gainerako nahastea eta bexamela. Akabuan, falta diran beste sei pasta-xerrak ipiniko doguz, eta hareen gainean, bexamela eta gaztai arraspatua. Lasagnea laban izango dogu 15-20 minutuan eta 180 graduan.

Perretxiko- eta gaztai-kremea

Osagaiak:

- 500 g perretxiko edo txanpinoi
- Litro bat barazki-salda
- 60 ml esnegain
- Kipula bat
- 150 g gaztai (krematsua)
- Oliba-orioa
- Gatza
- Piperbeltza

Prestetako area:

Kipulea txikituko dogu eta orio apur baten erregosiko dogu. Bitartean, perretxikoak garbitu eta txikitu-ko doguz. Perretxikoak kipulagaz batera salteatuko doguz, eta gura izanez gero, zati batzuk gordeko doguz gero kremea apaintzeko. Eginda dagoanean, saldea gehitu, eta gatza eta piperbeltza botako doguz. Su motelean 15 minutuan izango dogu.

Ondoren, ontzi edo edaltontzi handi batera botako dogu eta esnegaina eta gaztaia gehituko doguz. Osagai guztiak irabiau-ko doguz harik eta krema trinko bat lortzen dogun arte.



a: www.enterate24.net

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

RADIO TAXI FEMADE
Zure taxi, Teoriarikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

ERREKA LONDO
JAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29



GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 05

Umeen txokoa: bost desberdintasunak

Ezetz bost desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.onlykidsonly.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–*Babel aurretik: Euskal literaturen historia bat* (Txalaparta), Joseba Gabilondo. Itzultzailea: Amaia Apalauza Olló.
–*Nafarroako Mariskala* (Denonartean), Aitzol Lasa Oiarbide.
–*Dumitru biluzik* (Erein), Koldo Izagirre Urreaga.
–*Aireportuko musika* (Pamiela), Luis Garde Iriarte.

LITERATURA: GAZTEAK

–*BASTET. Ibaiertzeko Biztanleak*, Peio Lopez-Iturri. Ilustratzailea: Irati Merino Petralanda.
–*Goizargiren zira zuria* (Bellaterra), María del Prado Marquez Ruiz. Ilustratzailea: Paco Ortega.
–*Batetik zetara gure ostadarra* (Denonartean), Antton Kazabon Amigorena.
–*Rowley Jefferson Superjatorraren abentura* (Alberdania), Jeff Kinney.

Sudokua

3				1	6			
	8		3					2
5	4		2					
					4	5		
	2					4	7	
		7		5				1
		1				7		4
				8				
				3				5

5	8	1	6	3	7	4	9	2
9	6	2	1	8	4	3	5	7
4	3	7	5	2	9	1	6	8
1	9	6	2	5	8	7	3	4
8	7	4	3	9	1	5	2	6
3	2	5	4	7	6	8	1	9
7	1	3	8	6	2	9	4	5
2	5	9	7	4	3	6	8	1
6	4	8	9	1	5	2	7	3

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatan
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Ikuskizunak

Zamudio

- > Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Urriaren 16an, 18:30ean, Zamudioko kiroldegian. Lagatzu euskara elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > *Matriuska* antzezlan. Urriaren 4an, 18:30ean, eskolako aterpean (8 euro).
- > Bertso-saioa. Urriaren 16an, 19:00etan, eskolako aterpean (5 euro).

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz Berbetan: Oier Guillanen *VHS*. Urriaren 15ean, 19:00etan, Angulerin.

Lehiaketak

Txorierrri


- > Txorierrriko 23. Ipuin-lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: azaroaren 27ra arte, liburutegietan edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan.

Musika

Larrabetzu

- > Ruper Ordorikaren kontzertua. Urriaren 17an, 19:00etan, eskolako aterpean (8 euro).

Oier Guillan idazlea



Komikia

Ana Galar



Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

LASTER ZUREKIN GASOLINDEGI BERRIA

LARRABETZUN, SASINE POLIGONOAN

**Garraiolaria bazara, egin bazkide!
Partikularra izanez gero,
eman izena deskontua jasotzeko!
Ez galdu aukera paregabe hau!**



BIDEKO

ERREPIDEAN BIDELAGUN
COMPARTIMOS CARRETERA

Jarri gurekin harremanetan!

larrabetzu@hiru.org

T: 629 162 230

www.bidekoaterpe.eus



24h/365

GASOLIO ONENA, PREZIO EZIN HOBEAN!